



*Eskolako  
Agenda 21en X.  
urteurrena*

*/3. orrialdea*

*Saridunak, Hiri  
Iraunkorren  
Konferentzian*

*/2. orrialdea*

*Ondare  
historikoa  
berreskuratzeko  
ekimenak*

*/4. orrialdea*

*Auzoetarako  
sarbideak  
hobetzeko  
inbertsioak*

*/5. orrialdea*

*Muñatones  
Atletismo  
Taldea,  
atletismozaleak*

*/6. orrialdea*

## Editoriala

### *Adostasunpean Muskizen alde lan egiten*

Legealdi honetan, alkatea izan naiz berriro EAJren eta PSEren arteko hitzarmenari esker, eta, urtebete igaro ondoren, biztanleen proiektu eta ideia asko abian jartzen jarraitu dugula esan beharra dago. Talde honen ilusioa lehenengo egunekoak bestekoa da, eta, beraz, bere harri-koskorra ekarri nahi du, denon artean jende guztiarentzat atseginagoa den Muskiz eratu ahal izateko. Lan hori elkarrizketan eta adostasunean dago oinarrituta, talde guztien proposamenak kontuan edukitzeko eta erabakiak hartzen direnean sortzen diren zailtasunak konpontzeko, nahiz eta aldi berean udalerrientzat berarentzat aberasgarriak izan.

“*Lan hori elkarrizketan eta adostasunean dago oinarrituta, Muskizen onerako*”

Aldizkari honetan, azken hiruhilekoan udal-sailetan abian jarri diren zenbait ekintzaren berri emango dugu: hirigintza, kirolak, prestakuntza eta enplegua, kultura, ingurumena, gazteria...

Eskura dituzuen sistemen bidez zuon ideiak eta kezak bidaltzeko eskatu nahi nizuke, gure udalerrria hobetzen jarraitzen lagunduko digute-eta: iradokizunen postontziak, aldizkari honetan datorren partaidetza-kupoia, mugiorretako aplikazioak, herritarren foroak...

Bide batez, familiarekin eta lagunekin opor onak izan ditzazuen ere opa nahi dizuet.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



### *Margotzeko eta kontzientziatzeko liburuxkak*

Ingurumen Sailak kanpaina bat abiarazi du, Zaindu, Kontzientziatu, Margotu lelopean, La Arena hondartzako erabiltzaileei zenbait aholku eta gomendio helarazteko. Ekimen honen bidez, beharrezkoak ez diren arriskuak sailhestu, eta guztiona den ingurune naturala zaintzea sustatu nahi da, sasoi honetan herritar, bisitari eta turista ugari ibiltzen baita bertan.

Udalak 700 liburuxka editatu ditu, helduentzat nahiz gaztetxoentzat, eta hondartzan bertan bantuko ditu, margo-kutxa banarekin batera. Modu horretara, jolasaren bidez kontzientziaraziko dira haurrak.



### *Jantoki eta haurtzaindegidun hiri-udalekuak*

Udalak ia 25.000 euroko inbertsioa egin du aurten Hiri Udalekuak antolatzeko. Irteerak, kirol jarduerak, tailerrak, eta jolas kooperatibo, kultural nahiz osasunekoak egingo dira; udalerrian errol-datuta dauden 6 eta 12 urte arteko 74 neska-mutilek eman dute izena. Aurten berrikuntza nagusiak jantokia eta haurtzaindegia dira.

Hiri-udalekuen prezioa ia izko berbera da, hau da, 70 euro haur bakoitzeko; hala ere, deskontuak egingo zaizkie haur bat baino gehiago matrikulatzen dituzten familiei eta DSBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen dutenei.

## *Muskizek saria jaso du VIII. Herri eta Hiri Iraunkorren Europako Konferentzian*

Muskiz izan da Udal Plangintza Energetikoa: “Alkateen ituna” eta “Itunaren bidean” Jardunaldian saria jasotzen duen udalerrietako bat. Jardunaldia VIII. Herri eta Hiri Iraunkorren Europako Konferentziaren baitan antolatu zen.

Ingurumen Saileko teknikari batek Muskizek ekimen honetan egin duen ibilbidea aurkeztu zuen, Herritarrei Aholkularitza Energetikoa emateko Plataformak egindako lana azpimarratuz.





# Eskolako Agenda 21en X. urteurrena

**2** 015-2016 ikasturtean hamar urte bete dira Muskizko udalerrian Eskolako Agenda 21 lehendabizikoz ezarri zenetik. Agenda horretan, C.F. Somorrostro, San Juan Ikastetxea eta IES Muskiz BHI zentroek hartzen dute parte. Ekimen honetako jarduerak Udala-ekin lankidetzan garatzen dira.

Urte hauetan guztietan, eta ingurumen arloko hezkuntza eta iraunkortasuna oinarri harturik betiere, makina bat lan-

ildo garatu dira. Hauek dira aipagarrienak: hondakinak eta horien kudeaketa, uraren garrantzia, kontsumo iraunkorra, energia... Azken bi ikasturteetan aztarna ekologikoa eta bere kalkulua landu dira.

Aurtengo ekainaren azken aldera, ohi bezala, Muskizko ikastetxeetako ikasleek ikasturtean zehar egin dituzten jarduerak biltzen dituen aldizkaria banatu du Udalak, etxex etxe.



## Hobekuntzak kiroldegian

Udal kiroldegiko instalazioak hobetzeko aukera aztertzen ari da Udalbatza; hala balitz, hobekuntza horiek epe ertain edota luzera egingo lirateke. Ekimen honen helburua da zer-nolako inbertsioa beharko litzatekeen zehaztea, honakoak gauzatze-ko: estalitako 3 padel pista eraikitzea, teniserako pistak estaltzea eta uda sasoirako igerilekua egitea, aire librean, berdegune eta guzti.

Azterlanaren esleipenak 17.500 euroko inbertsioa eskatzen du (BEZ gabe). Pauso horri esker, udal arduradunek behar beste-ko datuak jaso, eta udal kiroldegiko instala-zioetan hobekuntza lanak gauzatuko diren ala ez erabaki ahalko dute.

## Gobernu Irekiko zinegotzigo berria sortu da

Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzea da Udalak legegintzaldi honetarako aurreikusi dituen helburu nagusietako bat. Zentzu horretan, beste pauso bat eman du Udalak, eta Unai Landaburu izendatu du Gobernu Irekiko zinegotzi. Plan Estrategikoa, Herritarren parte-hartzerako araudia, Gobernu Egokirako kodea eta auzoz auzoko bisita sistematikoen proiektua (AUZOTIK) sustatu eta garatzea izango da bere egiteko nagusia.

## Udal Sareak sozietateari atxikitzeko hitzarmena sinatu du Muskizek

Muskizko Udalak eta Ur Partzuergoak atxikitze hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, aurrerantzean, Udal Sareak arduratuko da edateko uraren sarea mantentze, ustiatze eta berritze lanak kudeatzeaz. Hitzarmen horren berrespenari esker, beharrezkoak diren zenbait inbertsio egingo dira, hala nola, kanalizazioak hobetzea eta ihesak saihesteko auskultazio kanpainak egitea.

Atxikitze-hitzarmen honekin, Muskizko bigarren mailako udal-sarea kudeatu, ustiatu eta mantentzeko betebeharrak hartu du bere gain Partzuergoak. Horrez gain, bigarren mailako sarea berritzeko proiektu bat ere idatziko du. Proiektu horretan, Udalak egin beharko dituen inbertsioak eta urte arteko inbertsio-programak adieraziko ditu.





## Ondare historikoaren berreskurapena

Udalak 20.200 euroko inbertsioa egin du Villanueva eta El Haya auzoetako garbitokiak leheneratzeko, guztiz narriatuta baitaude urteen eta hezetasunaren eraginez. Udalbatzak eraikinaren egitura eta gainerako instalazioetan esku hartuko du, udalerriko ondare historikoa berreskuratu nahian. Hori horrela, hesiak birgaituko dira, hezetasunaren aurkako pintura aplikatu, askak zigilatu eta urez bete, eta luminaria iragazgaitzak jarriko dira.



## “El Castillo” zamatzeko tokiaren egoera ezagutzeko azterlana

Gobernu taldeak begi onez ikusi du “El Castillo” minerala zamatzeko tokiaren altxaera planimetrikoa eta hiru dimentsioko erregistroa egitea. Horiekin, egitura zahar horren benetako egoera zein den jakin ahalko dugu, bai eta gerora begira egin beharreko jarduerak ere, zaintza, artapena eta balioa emateari dagokionez. Lan horiek 6.400 euroko (gehi BEZ) kostua izango dute, eta honakoa barne hartzen dute: zamatzeko tokiaren egitura eta ingurune osoa aztertzea (17.000 metro koadro, gutxi gorabehera). Udalerriko ondarea berreskuratzeko, Muskizko Udalak 91.000 euroko diru-laguntza jaso du Eusko Jaurlaritzatik.



## Herritarren parte-hartzea, La Glorieta leheneratzeko

Udalak bere lehendabiziko parte-hartze proiektua sustatu du, muskiztarrek eremu berde baten leheneratzean ekarpenak egin ditzaten, kasu honetan, La Glorietan. Mota horretako eremuen leheneratzean espezialista den enpresa batek zirriborro edota hasierako ideia bat presatu du; Linea Verde webgunean dago ikusgai. Horrez gain, maiatzaren amaiera aldera

informazio-jardunaldi bat antolatu zen, herritarren iritzi eta iradokizunak jaso ahal izateko.

Hau da La Glorieta basoberritzen den bigarren aldia, aurreko Gabonetan sute batek eremu oso kiskali ostean. Duela 5 urte, bertoko zuhaitzen haziak (Punta Lucero eta Janeokoak) erabili ziren berdegune hori berreskuratzeko.



## Berdeguneak mantentzeko kontratuak bi hektarea barne hartzen ditu

Berdeguneak mantentzeko eta bideetako sastrakak kentzeko kontratua 2016. urte bukaera arte luzatzea onartu du Muskiz-ek. Plegu berriak ia 2 hektarea barne hartzen ditu, indarrean dagoen lizitazioan jasotzen ez diren aisiarako gunee eta sarbideei dagozkienak. Itsaslur pasealekuko sarbide berriak, Barbadun erreka ondoko pasealekua edota N-634 errepideko biribilgunea, esaterako, ez ziren agertzen, oraintsu egindakoak direlako. Horregatik, Udalbatzak aldi baterako neurri hau adostu du, eremu horien artatzea bermatzeko, uda sasoiari batik bat, asko erabiltzen baitira.



## ***Muskizek 170.900 euroko inbertsioa egin du auzoetarako sarbideak hobetzeko***

**A** lde batetik, Arena izenez ezagutzen den bideko birgaitze-lanak bukatu dira, La Rigada auzoan. Lan horien azken kostua 78.229 eurokoa izan da (BEZ barne), eta honakoak barne hartu dituzte: lurzoruan zoladura jartzea, eremu aldapatsuetako malda murriztea eta euri-uren kanalizazioa. Lanak ekainean egin dira. Bestalde,

Udaleko gobernu batzordeak La Casería bideko birgaitze-lanak onartu ditu, eta udan egingo dira. Honako lanak egingo dira: lurzorua gaintik berriztatu, bi harri-lubetak egin, zenbait zatitan bidea zabaldu (bi ibilgailu aldi berean igaro ahal izateko), euri-urak kanalizatu, eta argiteria aldatu. Guztira, 92.680 euro (BEZ barne).



## ***Punta-puntakoak European eta munduan***

Muskizek sei desfibrilatzaile erdiautomatiko ditu guztira, eta horietako bost instalatu dira dagoeneko, udalerriko zenbait zentro publikotan eta Meatzari plazan. Ekimen honi esker, Muskizko herria erreferentzia bilakatu da Europa nahiz mundu mailan, 535 biztanleko desfibrilatzaile bateko ratioa duelako, eta gailu horiek toki publiko eta irekietan jarri dituelako.



## ***Belar artifizialeko zelaiak berriztatu dira***

Udalak 240.800 euroko inbertsioa egin du belar artifiziala duten zelaiak berritzeko (kiroldegiko Futbol 7 zelaia, eta Malekoiko Futbol 10 zelaia). Lanek 8.100 m<sup>2</sup> azalera barne hartuko dute, euren bizitza baliagarria, hamar urte ingurukoa, agortuta baitago dagoeneko. Instalazio horiek daukaten erabilera handia ikusita, berritze lanetan erabiliko diren belar eta materialen kalitatea handia izatea eskatu du Udalak, FIFAk homologatzen dituen antzekoak. Horregatik, sektore honetan punta-puntakoa den enpresa bat kontratatu da.



## ***Eguneko Zentroaren XXV. urteurrena***

Joan den ekainaren 20an, Eguneko Zentroaren XXV. urteurrena ospatu zen. Egun horretarako, udal arduradunek hainbat jardueraz osaturiko egitaraua antolatu zuten; horien artean: Estimulazio Multisentsorialeko Snoezelen salaren inaugurazioa, Gernikako Arbolaren kimu baten landaketa, eta Onda Vasca irratia zentrotik bertatik zuzenean egingako irratsaioan parte hartzea. Ospakizunez beteriko asteari amaiera emateko, Nervion-Ibaizabal Parkinson Elkartearen aldeko zarzuela, Eguneko Zentroko II. Akelarrea, musika eta dantzaldia ere egin ziren.



## Elkarrizketa



### Muñatones Atletismo Taldea, atletismozaleak

Muñatones Atletismo Taldea Kirol Elkarteak 1984an sortu zen talde moduan, atletismoa eta, oro har, kirolak oso gustuko zizuzten zaleen talde batean oinarrituta. Izan ere, kirol-elkartea sortu zuten, lehenengo une hartan funtsean eskolako kirola lantzeko asmoz. Kirola eta bizimodu osasungarria sustatzeko lan horretan, seniorren eta beterranoen atala ere sortu zuten 1998. urtean. Hori dela eta, atletismoko kategoria guztietan lan egiten du elkarteak.

#### G/ Zein da parte hartzeko eremua?

E/ Gaur egun, 7-19 urteko 55 atletak osatzen dute elkarteak, eta 3 entrenatzaileen gidaritzapean trebatzen dira. Seniorren eta beterranoen kategorietan, 20 inguru atleta lehiatzen dira. Kirolari horiek lurralde, autonomia eta nazio mailan lehiatzen dira, baita Europako lehiaketaren batean ere,

elkarteak lizentzia nazionala dauka-eta.

#### G/ Hainbat lagunek parte hartzen dutela kontuan hartuta, ziur sari asko lortu dituzuela.

Lorpenak ugariak izan dira, eta Muskiz zein ingurua atleta handien harrobi ona dela esan beharra dago. Esate baterako, zenbait kategoriatako txapelketak lortu ditugu Euskadin eta Bizkaian, banakako nahiz taldekako lehiaketetan. Gainera, beti-beti, kategoria guztietako aurkariak bete-betean errespetatu izan dute taldea.

Era berean, badira 35 urte elkarteak Muskizko Krosa antolatzen duela eta Bizkaiko Txapelketatzat hartzen dela eskola-ume zein beterranoen kategorietan. Azken edizioan, 1.200 atletak baino gehiagok parte hartu zuten bertan.

UD Muñatones AT Muskizko atletismoko pistan, 2015ean

#### G/ Zer erronka dituzue etorkizunari begira?

E/ Euren adina edozein dela ere, muskiztarren artean kirola eta bizimodu osasungarria sustatzen jarraitzea.

Hurrengo denboraldiari begira, izena emateko epea zabalik dagoela esan nahi genuke. Irailaren 8an hasiko gara, astelehen, astearte eta ostegunetan, 17:30etik 19:00etara, Muskizko kiroldegiko atletismoko pistetan.

#### G/ Zertaz zaudete harro kirol-elkarte moduan?

E/ Taldekideok oso harro gaude, adiskidetasuna eta laguntasuna sustatzen ditugulako zenbait adinen artean, lehenengoari zein azkenari gogo berberaz ematen diegulako adorea eta arlo horretan inolako bereizketarik egiten ez dugulako.



### POSTONTZIAN UZTEKO PARTE-HARTZE KUPOIAK

IZENA \_\_\_\_\_

ABIZENA \_\_\_\_\_

HELBIDEA \_\_\_\_\_

NAN \_\_\_\_\_

TELEFONOA \_\_\_\_\_

IRADOKIZUNA \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_



### Etxebizitzetan lapurretak saihesteko informazio- liburuxkak

Lapurretak saihesteko oinarrizko zenbait aholku biltzen dituen liburuxka editatu du Udalak. Muskiztarrek informatuta edukitzeko politikarekin bat etorritik, Udaltzarak ekimen honen alde egitea erabaki du; izan ere, etxebizitzetan izaten diren lapurretak uda sasoiaren gertatzen dira, %40an. Triptikoa udalerrira osoan etxetik etxe zabaldu bada ere, 300 bat ale gorde dira, zentro publikoetan banatzeko.

Kupoi hau bete, moztu, eta Muskizko Udalararen Aldizkaria iradokizunetarako 30 postontzietako batean utzi dezakezu. Zure mezuari ahalik eta lasterren erantzun zaito.